| Kidegoa: | Espezialitatea:Haur Hezkuntza | Hizkuntza: euskara |
|---|---|---|

| BALORAZIO IRIZPIDEAK | Gehieneko puntuazioak / murrizketa |
|---|---|
| Baldintza formalak betetzen ez baditu:<br>Programazio didaktikoak gehienez ere 50 orrialde zenbakitu izanen ditu, DIN-A4 formatuan, lerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimitu gabe. Grafika eta tauletan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Argazki-oinetan, orri-oinetan eta goiburuan Arial ez den beste letra mota bat eta aipatutakoak baino neurri txikiagoak erabiltzen ahalko dira. Azalaren diseinua libre da, baina nahitaez jasoko dira izangaiaren izena, abizenak eta NAN zenbakia edo identifikazio agiria. Programazioak gutxienez 10 unitate didaktiko zenbakidun eduki beharko ditu. Programazio didaktikoaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 orrialde horien barruan. Izangaiak bere borondatez eranskinak edo material lagungarriak gehitzen baditu, ulertuko da baimendutako orri kopuruaren barruan daudela, eta horiek ere aipatutako ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte. | Probaren A zatiaren balioaren % 50eko murrizketa |
| | |
| **Gaiaren antolaketa** | **2 puntu** |
| Programazioaren sarrera eta justifikazioa egitea eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen curriculumaren araberako testuingurua ematea. | Puntu bat |
| Ongi planteatuta daude programazioa osatzen duten elementuak, atalen koherentzia eta proposatzen duen sekuentziazioaren logika. | Puntu bat |
| | |
| **Eduki teknikoa:** | **2 puntu** |
| Programazioak curriculum elementuak zehazten ditu, mailaren arabera.<br>Programazioak honakoak zehazten ditu: helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak, metodologia, baliabide didaktikoak, etengabeko ebaluaziorako prozedurak eta tresnak, bai eta aniztasunari erantzuteko neurriak ere, arreta berezia jarriz hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen kasuan, guzti hau, kontuan izanda genero ikuspegia. | 2 puntu |
| | |
| **Eduki didaktikoa:** | **6 puntu** |

| | |
|---|---|
| Ikasturterako egokiak diren metodologia, materialak eta baliabide didaktikoak. Aniztasunari erantzuteko neurri koherenteak eta egokiak. | 1,7 puntu |

| | |
|---|---|
| Prozedurak, lanabesak, tresnak eta ebaluazioari lotutako bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitatean ebaluazioaren arloan indarrean den araudiari jarraituz. | 1,7 puntu |
| Aniztasunari erantzuteko neurriak, arreta berezia jarriz hezkuntza laguntzako premia berariazkoak dituzten ikasleentzako neurriei. | 2 puntu |
| Programazioa modu argian azaltzea. | 0,6 puntu |
| | |
| **Zuzentasun ortografikoa (murrizketa)** | **2 puntu** |
| Ortografia akatsak | |
| Gramatika akatsak | |
| Programazio didaktikoa izangaiak egin behar duenez, eta horrek lan pertsonala eta indibiduala eskatzen duenez, programazio plagiatuak aurkezteak edo izangai batzuek programazio didaktiko bera aurkezteak esan nahi du hori egiten duten izangaiek zero puntuko kalifikazioa lortu behar dutela probaren zati honetan. | |